

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1735

AGINDUA, 2023ko apirilaren 3koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez luzatzen baitira Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 10eko Aginduan aurreikusitako epeak. Agindu horren bidez, 2023ko «Kultura Ondarea Saria» deitu eta arautzen da.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 10eko Aginduaren bidez, «Kultura Ondarea Saria» deitzen eta arautzen da (2023ko urtarrilaren 18ko EHAA, 12 zk.).

Agindu honen xedea da «Kultura Ondarea Saria» deitzea eta arautzea. Sari horren helburua da saritzea 2022-2023 ikasturtean Euskal Kultura Ondarearen ezagutza zabaltzen hobekien laguntzen duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako, Batxilergoko lehen mailako eta Lanbide Heziketako Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehen mailako ikasleak.

Agindu horren 7. artikulua ezartzen duenez, eskabideak aurkezteko epea agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko apirilaren 14an amaituko.

Artikulu horren 4. apartatuan ezartzen da, halaber, 2023ko apirilaren 24an argitaratuko dela Eusko Jaurlaritzako iragarki-taula elektronikoan Kulturako sailburuordearen ebazpena, onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrendarekin. Halaber, 2023ko maiatzaren 18an, onartutako eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrenda argitaratuko da Eusko Jaurlaritzako iragarki-taula elektronikoan.

Deialdiaren hartzaile diren ikastetxeentzat, eskabideak aurkezteko azken eguna eta aurreko egunak bat datoz eskolarik gabeko aldiarekin, eta horrek zaildu egin dezake, kasu batzuetan, deialdian parte hartzeko eskabideak aurkeztea. Horregatik, deialdiaren xede diren ikastetxeek ahalik eta partaidetza handiena izan dezaten, guztiz egokitzat jotzen da «Kultura Ondarea Saria» arautzen duen Aginduan jasotako epeak aldatzea, eta agindu honetan jasotako baldintzetan luzatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikulua araber, Administrazioak ofizioz luzatu ahal izango ditu ezarritako epeak, baldin eta komenigarritzat jotzen bada eta besteren eskubideei kalterik egiten ez bazaie, salbu eta kontrakoa dioen manuren bat badago. Luzapen horrek ez du epearen erdia gaindituko.

Azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, eta hirugarrenaren eskubideei kalterik egin gabe, komenigarritzat jotzen da eskabideak aurkezteko epea luzatzea, ikastetxeetako eskolarik gabeko aldiaren baliokidea izango den aldi batez, sariaren deialdian parte hartu nahi dutenek nahikoa denbora izan dezaten eskabideak aurkezteko. Era berean, epeak luzatzearen ondorioz, egokitzat jotzen da aipatutako gainerako epeak luzatzea.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Aginduaren 7. artikuluan aurreikusitako honako epe hauek luzatzea:

– Eskabideak aurkezteko epea Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko apirilaren 27an amaituko.

2023ko apirilaren 13a, osteguna

– 2023ko maiatzaren 10ean, Kulturako sailburuordearen ebazpena argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan, onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrendarekin, eta, hala badagokio, akatsak edo omisioak zuzentzeko arrazoia eta epea adieraziko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua araber.

– 2023ko maiatzaren 31n, akatsak eta omisioak zuzentzeko epea amaituta, Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da onartutako eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrenda, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 3a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.